


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urriaren 10a / 645. zenbakia

EGUENETAKO ZINEKLUBA ABIAN DA BERRIRO



Eguenero ezohiko filmak Amaia
Udal Antzokian, 21:30ean

ORAIN ETA HEMEN: ALKATEARI ELKARRIZKETA/6-7 • EHNA-REN ALDEKO KANPAINA/8

ARGAZKIA: MANGA FILMS. AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/2

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxes: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea

Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak**



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxes: 943 79 11 35

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Eraikuntzak



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.

Tel: 943 79 67 78 Faxes: 943 77 10 09

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

**Gremioen Gidan
agertu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora**

KALEINKESTA/ Gripien kontrako bakunarik hartzen dozu? Bakunen gaiñien ze iritzi dauketzu?



TOMAS FRUTOS
Langillie

Neuk ez dot gripien kontrako bakunarik hartzen, mediziña naturalan aldeakue naz-eta. Gizarte honetan interes ekonomiko haundixek dauz, eta batek daki! Hala eta be, batzuei on egitten dutzie.



LUCIANO TENA
Langillie

Neuri medikuek esan eusten gripien kontrako bakun- nie hartzeko, eta juen dan urtien hartu neuen lelengo aldiz. Oin, gustora nabil, lehen katarro gehixago har- tzen neuen-eta.



URBANO GIL
Jubilau

Aurten hartu dot lelengo aldiz bakunie. Sekule be ez dot katarrorik euki, baiñe jentie hartzen ebillela iku- sitte, neuk be hartu neuen. Ondo dauela uste dot, bada- ezpada be.



SERGIO RUIZ
Langillie

Oin dala lau urte hasi nitzen bakunetan. Kontue da asmie dauketela, eta gripie har- tzen badot, astebete bihe- rrien hillebete egoten naz gaixorik. Bakunetan hasi nitzenetik hobeto nabil.



OIHANA ARREGI
Langillie

Neuk ez dot bakunarik har- tzen, eta etxien be ez dau iñork hartzen. Ez dot uste oso naturala danik, baiñe hori norberak neurtu biher dau. Ondo egitten dutzo- nari, aurrera.



VICENTA BENGOA
Jubilau

Neuk ez dot bakunarik har- tzen, baiñe premiñie dau- konak hartu daixela; hori norberak ikusi biher dau. Pentsetan dot bakunekin enpresa farmazeutikuek dirue ataraten dauela.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK AZOKA EGUNETAKO APARKAMENDUA ARAUTUTA

Ferixalekuko bizilagun batzuek txalotu gura izan dute argazkiko sei- nalea ipini izana. Seinale horrek arautzen du azoka egunetan – egua- ztenetan eta egubakoitzetan – Ferixalekuan non eta zein orduan apar- ka daitekeen. Orain arte behin-behineko seinaleak ipintzen zituzten, eta bizilagunak nahastu egiten ziren aparkatzeko garaian.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 13

KULTURA / 14

Komun publikoak

Monterron kanpoan ipinitako komun publikoak konpondu egin dituzte eta zabalik daude berriro ere.

Eskubaloia abian

Arrasate Eskuba- loi Taldea osatzen duten bost taldeek oraingo astebu- ruan hasiko dute liga txapelketa.

Filmek eskaintza

Udaleko Kultura Saila aurrerantze- an Amaia Udala Antzokian filmak emateko aukera aztertzen dabil.

ASTEKO DATUA

32

ERRETIRATU JOANGO DIRA NAGUSIEN MARTXARA

Bihar, zapatua, Arrasateko hogeita hamabi erretiratu joango dira Zestoako Nagusien Martxara. Herriko erretiratu elkarte bakoitzeko zortzi. Erdia baino gehiago emakumeak dira.

BESTE EKESANA

“Duela hamabost urte sortu zen tokiko euskarazko prentsa modernoa. Inor gutxik espero zuen aurrera egingo zuenik. Are gutxiago egungo zabalkundea eta ezarpenik izango zuenik. Hamabost urteotan etengabe hobetzen joan dira gure tokiko komunikabideak. Kataluniatik asko ikasi dugu. Europako hizkuntza txikien tokiko komunikabideei, ordea, ez diegu erreparatu. On egingo digu inguruko beste hizkuntzetako komunikabideen berri izateak: agerian jarriko du zertan asmatu dugun eta zertan hobetu behar dugun. Baina, Mercator-eko adituek baieztatu egingo digute euskarazko tokiko prentsaren formula egokia dela doanekoa izatea, harpidetza bidez zabaltzea, publizitate eta erakunde publikoen laguntzarekin...”

JOXE FELIX DIAZ DE TUESTA
‘TOPABERRI’/03-09-20

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Artzainak, txakurrak eta ardiak

Orotariko txakurrak aurkitu nituen aurrekoan telebistan. Artzain txakurrak eta ardiak ikusi nituen aurrena, artzainak maisutasunez agintzen zion txakurrari eta honek ardiak gidatzen zituen. Ardiek ikara aurpegiz, txakurrari men egin eta artaldean, artzainaren nahiak betetzen zituzten. Tira, egungo gizarteak lez jokatzen zuten ardiek, txakurraren papera berriz beste askok betetzen dute eta artzainarena bestetzuek (barkatu biezadate artzai- nek, haien txakur eta ardiek paralelismo hau, ez baitut ezer haien kontra).

Baina, telebistari begira nenbilela, artzain-txakurren zera horren ondotik, aurkitu nuen paralelismo hontara ekarri nauen kontua. Esan bezala, orotariko txakurrak aurkitu nituen telebistan, eta horra non aurkitu nuen beste praktika baten erakustaldi bitxia. Polizi txakurrak eta bestelako txakurrak, zezen

plaza baten bueltan, beraien akrobazia, jakinduria eta bestelako pitokeriak egiten. Bai, lehen ardiei oldartzen zitzaie txakurraren papera betetzen duten horietan agertu ziren, publiko inozo bati beraien armak, txakur drogadiktoak, manifestazio

“Eskerrak horrelako ‘ardi beltzak’ gurean badiren... artaldean mugitu barik nork bereari tinko eusten diotenak”

itxurako koadrila baten aurkako kargak... erakusten. Minutu gutxi batzuek soportatu ahal izan nuen zirku negargarri hura. A ze erakustaldia, ze baloreak, ze ausardia... bejondeiela!

Amalurraren eta herrien mundu hau hobetu nahi dugun ardian aurka etengabe dabilen txakur horien inguruan gogoetan aritu nintzen. Pantailan ez nuen artzainik ikusi, guztiok dakigu, ordea, zeintzuk diren horiek. Batean ez bestean, ez nuen ardi beltzik ikusi. Baina, eskerrak horrelakoak gurean badiren... hain zuzen ere, artaldean mugitu barik nork bereari tinko eusten diren horiek.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Fagor Arrasaten ospakizun eguna

Egubakoitzean Fagor Arrasaten erretiratutako 150 lagun elkartu ziren. Goizean goiz Fagor Arrasateko lantegia bisitatu zuten. Langile ohiak emazteekin batera joan ziren, eta aspaldiko lagunekin egoteko aukera izan zuten. Makina berriak ikusi eta lehengoak han segitzen duten begiratzeko aukera ere izan zuten.

Arrasateko lantegia bisitatu eta gero, erretiratuak Markinara abiatu ziren, han dagoen Fagorko beste lantegia ikustera. On Jose Maria Arizmendiarrizaren museoan izan ziren; eta meza entzun zuten, hildako lankideak oroitzeko. Gero bazkari ederra egin zuten.

Sute txikia Kataiden

Kataide industria-gunean sute txikia izan zen zapatuan. Kataideko bizilagunek 14:30ak aldera igarri zuten erre usaina; berehala azaldu ziren udaltzain eta suhiltzaileak.

Suhiltzaileak Iberdrola enpresako transformadoreko atea irekitzen saiatu ziren, handik zetorren-eta kea. Atea zabaldu zutenerako, baina, ke handia zegoen. Ordurako Arrasateko auzo askotan argi indar barik zeuden, besteak beste: Makatzenan, Musakolan, Gelma inguruan eta Otalora kalean. Ilunkeran arazoa konponduta zegoen.

Dirulaguntza eskaera Jaurlaritzari

Arrasateko Udalak hainbat lan egiteko dirulaguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Lan horiek kaleak egokitzeko dira; zailtasunak dituztenendako, hain zuzen.

Batetik, dirulaguntza hori Erguin auzoan egiten dabilzan lanetarako izango da; espaloiak egokitzeko, besteak beste. Bestetik, Udalak Arrasateko alde zaharreko gune batzuetan zoladura aldatzeko asmoa du. Bi lan horiek egiteko eskatuko dio Udalak dirulaguntza Eusko Jaurlaritzari.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Burutik jota!

Honako testu hau eguaztenez ari naiz idazten. Compostelan futbol partidu baten gizon bat kolpeka hil zuten, eta azkenaldian, futbol partiduetan biolentzia handia pizten ari da. Itxuraz, batzuentzat futbol aurkariak arerio bihurtu dira, eta partiduak ikustera joaten dira futbole-an bizitza jokoan izango balute bezala.

Horrez gain, A3 kateak eman dion babesari esker, Arnold Schwarzenegger Kaliforniako gobernatzailerik bilakatu da. *Rambo*-ren garaiak Vietnamen gelditu ziren, eta agian *Terminator* Irakerako edo Afganistanera joango da. Gaixoak hangoak!

Hori guztia eta ahazten dudana beste asko gutxi balitz, gaur, eguaztana, Garzonek eta Le Vert epaileek Euskal

Herrian eta Zaragozan izugarrizko sarekada egin dute, eta guztira 34 lagun atxilotu dituzte. Zoritxarrez halakoetara ohitzen hasiak gara. Kontua da ahalik eta lagun gehien atxilotzea, eta ez da garrantzitsua errugabeak edo errudunak diren.

Badirudi mundua jota dagoela eta, agian, domekan, Amaia Udal Antzokira joan beharko genuke psikiatrikoetan daudenek zer esaten duten entzuterako. Gu baino hobeto egongo dira, ziur.

ASTEKOIRUDIA




UBANE MADERA

INOIZ BAINO JENDE GEHIAGO MARITXU KAJOIREN MIRARIAREN ZAIN

Maritxu Kajoi lekuz aldatu zutenetik jende gehiago elkartzen da Maritxuren miraria ikusteko. Orain lehen baino leku handiagoa dago, eta egubakoitzean Herriko Plaza lepo bete zegoen. Aurrealdean jende gaztea, atzealdean, lasaiago, nagusiagoak. Guztiek gura izan zuten Maritxu omendu, eta Aston-

doa piroteknia enpresakoek arkuari su eman ziotenerako herritarrak dantza baten zebiltzan. Arratsalde partean euri zaparrada galanta egin bazuen ere, herritarrak ez ziren kikildu, eta kalean izan ziren gorputzak nahikoa zela esan zuen arte. Sekulako jai giroa izan zen kalean, jai giro jatorra. /A.PRESS



Berrikuntzak Industria Erakusketan

Arrasateko Industria Erakusketak berrikuntza ugari egingo ditu oraingo ikasturtean. Oraingo tornu berri bat jarri dute eta bisitaldi gidatuendako material didaktikoa prestatu dute. Baina beste hainbat berrikuntza ere egingo dituzte; eta langileengan oinarritutako liburua egiten dabilta.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erriebedun hizkiak

ELKARRIZKETA

INAZIO LAKUNZA/ALKATEA

“Lau proiektu ditut oraingo agintaldian: tunela, musika etxea, kultura etxea eta...”

ARRASATE IRRATIA/UBANE MADERA

Maiatzeko hauteskundeetatik hilabete batzuk pasatu dira dagoeneko. Eta, esanenezake udal taldeak hartu duela bere lekua Udalean. Aldaketak ere egin dituzte, eta dagoeneko hasi dira agintaldi berri-rako ildoak erabakitzen, zehazten eta garatzen. Horren guztiaren gainean ditugun galderari erantzun digu Inazio Lakunza alkateak.

Dagoeneko bi hilabete luze egin dituzu Arrasaten alkate moduan, zein balorazio egiten duzu?

Nahiko balorazio positiboa egingo nuke nik. Batez ere ikusita zein jarrera ona izan den, adibidez, udaletxean; oso jarre-positiboa izan dute. Eta hori oso atsegina izan da. Motibazio berezia ematen dit.

Inazio Lakunzarekin estilo aldaketa dator Arrasateko Udalera?

Neure ustez hasi da igartzen; agian herritarrek oraindik ez dituzte aldaketa asko ikusiko; baina, barne kudeaketan eta sistema kudeaketan aldaketa dezentegina egin ditugu.

Hasierako bi hilabete hauetan zein izan da zure egiteko garrantzitsuena?

Lehenengo aldaketa korporazioan izan da, haren egitura politikoan aldaketa nahiko nabaria egin dugu. 13 batzordetatik 6ra pasatu gara. Horrek ekarriko duena da egitura politikoa eta kudeaketa sistema batera joatea; hori poliki-poliki garatuko da, baina, uste dut datorren urterako abian egongo dela.

13 batzordetatik 6ra jaitsi duzuela esan duzu, zein da horren helburua?

Helburua izan da Gobernu batzordean talde moduan lan egitea, guztiok lan egiteko eta funtzionatzeko modu berdintsua izateko. Enpresetan izaten den kudeaketaren antzera, alegia.

Helburua lana arintzea edo azkartzea da?

Bai hori da. Bestalde, kompetentzia aldetik ere aldaketa nahiko egin dira. Adibidez, Gobernu batzordean dauden batzorde informatiboetako lehendakariak izanik, erabakiak hartzeko eta abarretarako kompetentziak dituzte. Eta, nik uste dut horrek ekarriko duela, besteak beste, Udaleko espedienteak azkarrago kudeatzea.

Horren barruan dago, adibidez, 6.000 euroko aurrekontuak Gobernu batzorde-

tik pasatu gabe zinegotziek erabaki ditzaketela, ezta?

Bai, hori da.

Uztailean beste erabaki bat ere hartu zenuten: hainbat zinegotzi liberatzea Udaleko lana egin dezaten soldataren truke; horren barruan, oposizioan dagoen PSE-EEko bozeramaile Paco Garcia liberatu duzue eta horrek ekarri du zeresanik...

Zinegotziak liberatzea lehen esan dudaren ondorio logikoa da; Batzorde gutxiago ditugu, baina batzorde bakoitzak lan gehiago dauka; horrek esan gura du zinegotziek denbora gehiago behar dutela batzordeetako lana egiteko. Horrek liberazioak ekarri ditu. Hori batetik.

Bestetik, Paco Garciaen liberazioa dela-eta, esango nuke, garbi lagatzeko, hainbat arrazoi daudela atzetik: Koalizioaren (EAJ-EA) eta PSE-EEren artean Gipuzkoan akordioak egin zituzten bestelako Udaletan: Irunen, Eibarren, Hernanin... Eta guri egokitu zaigu oposizioan liberazioen bat egitea. Horrez gain, esan beharra dago Arrasaten PSE-EE bigarren indarra dela, bost zinegotzirekin eta guztiok moduan zergak ordaintzen dituela... Era berean, Eudelek ere kontsiderazio batzuk egin zituen, horien artean, normaltzat hartu behar zela oposizioan ere liberazioak egitea.

Eta zergatik ez liberatu Partidu Popularra?


Batetik, kopuruarengatik. Batek bost zinegotzi ditu, eta besteak bi bakarrik. Eta, lehen esan dizudan moduan Gipuzkoa mailan akordioa dago, horrek konpromisoak ekartzen ditu eta horiei aurre egin behar zaie.

Eta jakinda oposizioari soldata eman behar zaiola, zer ulertu behar dugu: oposizioak Udalerako lana egingo duela ala oposizio indartsu bat izango duzuela?

PSE-EE ez da egongo Gobernu batzordean, hori argi dago. Baina hala ere, nik Paco Garciaekin dagoeneko abiarazi ditut harreman sistematikoak informazioa elkartrukatzeko, akordioak lortzeko...

Beste kontu bat: ezker abertzaleak ez du ordezkari-tzarik Udalean, eta zuk zeuk esan zenuen bilatu beharko dela herritar horiek Udalean ordezkatzeko moduren bat, zertan da gai hori?

Nahiko geldi dagoela esango nuke. Nik uste nuen orokorrean eta partidu mailan akordio-aren bat hartuko zutela. Eta hori ez da lortu, momentuz, behintzat.



“Esan gura dut nire atek beti zabalik daudela, hala egon direla eta hala egongo direla”

Akaso Ibarretxeren Planetik-edo zerbait sortuko da... Ni orain arte akordio orokor horren zain egon naiz. Legalki, badakizue ezin dela ezer ere egin. Baina, hortik aparte egon daitezke moduak. Dena dela, hori oraingoz lortu ez denez, esan gura dut nire atek beti zabalik daudela, hala egon direla eta hala egongo direla, edozein talderendako, erakunderendako...

Hortaz, zer ulertu behar dugu: orain arte ezker abertzaleko inor ez zaizula joan udaletxera parte hartzearen

“Gobernu moduan, gure helburu nagusia lan egiteko talde bat sortzea zen, eta oso ondo goaz”

gainean galdezka?

Galdezka ez; harremanak izan ditugu, baina, ez dira oso formalak izan.

Eta zuk nahiko zenuke erabaki orokorrago bat egotea...?

Bai, izan ere herri bakoitzean modu ezberdin batean aritzen bagara, jendeak ez du ulertuko.

Gobernu batzordean, gaur egun, EAJ-EA, Ezker Batua eta Aralar zaudete, oraingoz zelan funtzionatzen du?

Hasiara-hasieran batzar nahiko zabalak eta luzeak egin

“Ikusten badugu osoko bilkuren ordutegia traba dela, aldatzeko gertu gaude”


genituen hausnarketa egiteko ea Udalean, Gobernu moduan, zer lortu gura genuen; eta gure helburu garrantzitsuena izan zen talde bat sortzea lan egiteko. Uste dut bide horretatik oso ondo goazela.

Pozik zaude Ezker Batuarekin eta Aralarrekin?

Oso pozik nago. Jakina, bakoitzak bere ideologia dauka. Hori horrela da eta horrela izan behar da. Dena dela, gauzak oso ondo doaz.

Eta zein da udalbatzar osoren osasun egoera? (Udalba-

ko: Olandixoko t Mojatetikoa



U.M.

tzarrean EAJ-EA, EB, Aralar, PP eta PSE-EE alderdiak dau-
de). Zein da zuen arteko komu-
nikazioa?

Lehenik eta behin esan behar
da duela bi aste egin genuela
lehenengo bilera eta hemendik
aurrera horrela izango dela. Oso-
ko bilkurak astelehenetan izaten
dira eta Bozeramaileen batzor-
dea egunetan edo egubakoitze-
tan batzartuko da.

Bozeramaileen batzordean
indar politiko guztiak elkartzen
dira, batik bat, arazo politikoak
(mozioak-edo) eztabaidatzeko eta
osoko bilkurak baino lehen akor-
dioren bat lortzea posible bada,
aurrera eramateko.

Zuk zeuk esan duzu osoko
bilkurak astelehenetan izate-
ren direla, 09:00etan, zergatik
egun eta ordu horretan?

Alde batetik astelehena nire
ustez asteke beste edozein egun
bezain aproposa da. Ordulegia-
ri dagokionez, Udaleko ohiko

lan orduetan egitea ondo irudi-
tzen zait. Izan ere, Udaleko sail
guztiek ere lanean dihardute
ordu horretan. Akaso hori jende-
arendako traba izango da, bai-
na, uste dut, era berean, gaur
egungo egoera kontuan hartuta,
edozein lantokitan posible dela
langileak, bere lana moldatuta,
goiza-edo libre hartu ahal izatea.
Dena dela, azkenean ikusten
badugu benetan traba dela, bada,
beti gaude gauzak aldatzeko ger-
tu. Printzipioz dagoenetan gera-
tuko da.

**Alkatetzara begira, dato-
zen hilabeteotarako edo urte-
otarako zein proiektu garrant-
zitsu dituzu?**

Agintaldi osorakoak izango
lirateke. Bereziki, lau: Olandi-
xoko tunela bideratzea (hasi gara
Diputazioarekin berbetan);
musika etxea egitea, musikare-
kin lotutako elkarte guztiak leku
berean batzea da helburua; hiru-
garren proiektua kiroldegia izan-
go da, ea gai garen Mojatetik
kirol-gunea egiteko; eta, laugar-
ren proiektua hasita dago, bai-
na, nahiko arazorekin hasi zen:
kultura etxea. Hor egin behar-
reko lanak bukatu gura ditugu.

**Orain dela pare bat aste
Debagoieneko Mankomuni-
tateko presidente izendatu zin-
tuzten, eta zuk zeuk esan
zenuen, logikaz, Arrasateko
alkatea izan beharko litzate-
keela Mankomunitateko
buru, zergatik?**

Esango nuke Arrasate dela
Debagoieneko herririk handie-
na, batetik. Bestetik, mundu guz-
tiak daki zer den Arrasate edo
Mondragoe, sinbolo modukoa
da. Hala, bi arrazoi horrengatik
tokatzen zaito izatea Debagoie-
neko buru.

**Hori ulertu dute herri txi-
kietako alkateek?**

Buelta eman behar zaito Man-
komunitateari, eta lokalismoak
gaindituz ea lortzen dugun bai-
larako herri guztien koordina-
zioarekin, adibidez, garraiobi-
deak, kultura edo aisialdia hobe-
tzea. Arlo horretan badago
aukerarik lan egiteko!

Zer moduz euskara?

Esan beharra daukat astean
bi egunetan euskara maila hobe-
tzeko saioak izaten ditudala.
Laguntza daukat, eta oso pozik
nago.

**Bukatzeo, zerbait gehia-
go esan gura duzu?**

Bizi izateko hiri atsegina lor-
tu nahi badugu gauza asko alda-
tu beharko ditugu. Batetik, etor-
kizunerako ikuspegi garbia izan
beharko dugu eta, bestetik,
denon jarrera positiboa ezin-
bestekoa izango da.



U.M.

Neguan 09:00etatik 21:00etara zabalduko dituzte Monterrongo komunak.

Monterrongo komunak berriro zabalik, baina orain egunez bakarrik

UBANE MADERA

**Joan den maiatzaz geroztik
itxita egon dira Monterrongo
komun publikoak. Zabaldu eta
berehala itxi egin behar izan
zizuten, jendeak eragindako
kalteak konpontzeko. Orain
zabaldu egin dituzte berriro,
baina aurrerantzean gauze-
itxita egongo dira.**

Joan den apirilean estreinatu
zizuten Monterrongo komun
publikoak. Baina ez ziren denbo-
ra luzez zabalik egon, zabalik egon
ziren 15 egunetan ezezagunek hiru
bider apurketak eragin zituzten-
eta komun horietan. Hala, maiatz
hasieran Monterrongo komunen
ateak itxi egin behar izan zituz-
ten. Eta hala egon dira oraingo
asteke astelehenera arte.

Orain, Udaleko Zerbitzu
batzordetik jakinarazi digutenez,
berriro daude erabiltzeko

moduan. Hori bai, 24 orduz barik,
12 orduz zabalduko dituzte komu-
nak, eta gauze itxita egongo dira.
Izan ere, aurreko aldiatiko apur-
ketak gauze egin zituzten eta Uda-
leko Zerbitzu batzordeak eraba-
ki du hemendik aurrera komunak
gauze itxita egongo direla. Modu
horretan apurketa gehiagorik ez
egitea espero dute.

APURKETA DEZENTE

Lehen esan bezala, 15 egunean
hiru bider egin zituzten apurke-
tak. Eta kalte dezente eragin zituz-
ten, gainera. Zerbitzu batzorde-
ko teknikariak esandakoaren ara-
bera, gutxituen komuna apurtu
zuten, baita ispilua eta bideta
ere, pintadak egin zituzten hor-
metan...

Egoera horren aurrean era-
baki dute udan eta neguan ordu-
tegi ezberdina izango dutela
komunek. Orain, neguko ordu-
tegiarekin zabaldu dituzte:

09:00etan hasi eta 21:00ak arte,
hain zuzen ere. Udan, berriz,
09:00etan hasi eta 23:00ak arte
zabalduko dituzte.

ASPALDIKO ASMOA

Aspalditik zuen Udalak Monte-
rrenon komunak ipintzeko
asmoa. Berez leku hori gune estra-
tegikoa da, jende asko ibiltzen
delako. Eta gainera, orain lehen
baino gehiago. Izan ere, Gernika
Oinezkoen Zumardiak jende
gehiago erakarri du inguru horre-
tara. Hala, oinezkoen zumardia-
ren Monterrongo zatia inaugu-
ratu eta berehala zabaldu zituen
Udalak komunak, joan den api-
rilean.

Hasieran, Seber Altuben dau-
den moduko komunak ipini behar
zituzten, baina Monterrenon leku
egokirik ez eta Monterrenon
zegoen garaje zaharra aproba-
txatu zuten. 30.000 euro inberti-
tu zituzten lanok egiten.

Aldai hilerriko gorpuzkiekin zer egin jakiteko gutunak bidaltzen

U.M.

Iragarri bezala, Aldai hilerri zahar-
reko hezurtegiak geratzen
diren gorpuzkiekin zer egin gal-
detzeko gutunak bidaltzen dabil
asteotan Arrasateko Udala. Hain
zuzen ere, Aldai hilerrian seni-
deren bat ehortzita dutenei jaki-
narazten diete, besteak beste, aza-
roaren 15era arte dutela 1991n,
92an, 93an eta 94an Aldain ehort-
zitako gorpuzkiekin zer egin
behar duten esateko.


Gorpuzki horiek gordetzeko
Udalak eskaintzen dituen zer-
bitzuen artean honako bat auke-
ra dezakete senideek: San Kris-
tobalgo panteoi pribatuan gor-
detzea, hezurtegi pribatuan
gordetzea, hezurtegi komunean
gordetzea edo gorpuzkiak erre-
tzea. Hala, interesatuak gura
duen aukera egin dezake, bai
eta bestelako irtenbideren bat
aukeratu ere.

Edozelan ere, egiten duena
eginda ere, Udalari horren berri

eman beharko dio, azaroaren 15a
baino lehen.

HEZURTEGI KOMUNA

Izan ere, egun hori baino lehen
Udalari senidearen gorpuzkiekin
zer egin jakinarazi ezean, Udalak
San Kristobalgo hilerriko hezur-
tegi orokorrean sartuko ditu gor-
puzkiak. Eta gai horrekin lotuta
zalantzaren bat duenarendako,
honako bi telefono zenbakiak ipi-
ni dituzte herritarren eskura: 943
79 09 00 edo 943 79 95 21.



Zuberoa izeneko kalea, Lapurdi izeneko kalea eta Legarra izeneko plaza sortu dituzte Legargainen.

ARRASATEKO UDALA

HIRIGINTZA/ Legargaingo urbanizazio lanek eraginda helbide aldaketak izan dira

Legargain inguruko etxeetan helbideak aldatu dituzte

UBANE MADERA

Legargain inguruan etxe berriak egin dituztela-eta, inguruko urbanizazioa aldatu egin da. Orain kale berriak daude, eta horren ondorioz, hango etxebizitzetako batzuen helbideak aldatu egin behar izan dituzte. Udalak emango die aldaketan berri oinarritako zerbitzuei.

Legargain inguruan gauza dezentente aldatu dira azkenaldian. Inguru itxuratzeaz gain, urbanizazio lanekin, etxe berriak, kale berriak

eta plaza bat egin dituzte. Hala, lehengo Legargain kalea dezentente luzatu eta Oñati kaleraino iristen da orain; haren behean dagoen kaleari Zuberoa kalea izena ipini diote; eta haren behean dagoenari, Lapurdi kalea. Bukatzeko, etxebizitzetan aurre aldean plaza bat egin dute eta Legarra plaza izena eman diote.

HELBIDE BERRIAK

Aldaketa horiek guztiak aldaketak ekarri dituzte hango etxebizitzetan helbideetan. Hala, orain arte Legargain 1, 7, 2, 8 eta 10 zen-

bakiak zirenak, hemendik aurrera, Legargain 4 eta 6; eta Zuberoa kalea 2, 4 eta 6 izango dira. Eta, Legargain 4 eta 6 zirenak, Legargain 8 eta 10 izango dira aurrerantzean. Berriz, Legargain kaleko 3 eta 5 zenbakiak bere horretan geratuko dira. Eta, gainerako etxebizitzek kale berrien izenekin izango dituzte helbideak.

Udalak jakinarazi digunez, eurak arduratuko dira postetxe-ari, Diputazioari, Telefonitari, Euskalteli eta bestelako zerbitzuei Legargainen egindako aldaketan berri ematen.

Uste baina eskaera gehiago enpresendako laguntzetarako

U.M.

Joan den astean bukatu zen enpresendako dirulaguntzak eskatzeko epea. Emandako datuen arabera, iaz baino eskaera gehiago jaso dituzte. Guztira, 16 lanposturendako laguntzak eskatu dituzte.

Orain, jasotako eskaera guztiak aztertu beharko dituzte Garapen Estrategikoa izeneko batzordean. Hain zuzen ere, oraingo astean hasiko dira gai hori lantzen. Eta gero, hiru hilabeteko epea dute guztia aztertzeko eta erabakiak hartzeko. Hala, Gabonetarako jakinaraziko dituzte erabaki guztiak.

ESKAERA GEHIAGO

Guztira, 16 lanposturendako eskaerak egin dituzte 12 enpresak. Honako jarduera hauetarako: eraikuntza arlorako, bi lanpostu; ekoizpen industrialerako, hiru lanpostu; merkataritzarako, bes-

te hiru; bi ostalaritzarako; beste bi hirugarren adinekoen zerbitzuetarako eta lau zerbitzu pertsonaletarako (estetika zentroetarako eta antzerakoetarako).

Garapen Estrategikoko batzordetik esan digutenez, espero baino eskaera gehiago jaso dituzte aurten. Iazko datuekin parekatuz gero, iaz, guztira, 10 eskaera jaso zituzten; aurten sei gehiago. Alde dezentente dela esan digute, eta arrazoi nagusia enpresen kontratazio politika dela. Izan ere, enpresetako kontratazioa jaitsi egin da, eta ondorioz, autonomo motako kontratuak gora egin du. Hala, Udalak jasotako eskaeren artean, bi mugagabeko kontratuetarako izan dira; gainerako guztiak, berriz, autonomo izateko.

Bestalde, eta espero baino eskaera gehiago egon direla-eta, Garapen Estrategikoko batzordeak kreditu aldaketa eskatu beharko du eskatutako dirulaguntza guztiak onartzen badituzte haiei aurre egiteko.

LABUR

Arrasateko udaletxean erretzea mugatzen duen legea beteko dute apurka-apurka

Oraingo asteko Gobernu batzordeak onartu du apurka-apurka udaletxeko gune gehienetan erretzeari utziko diotela. Hain zuzen, jendaurreko lekuetan erretzea debekatzen hasiko dira, eta udaletxeko bestelako lekuetara iritsiko dira. Hala, asmoa da langile erretzailendako toki egokituak jartzeko aukerak aztertzea eta erretzeko debekuak non dauden adierazteko kartelak ipintzea, besteak beste.

Udalak dirulaguntza eskatu dio Jaurlaritzari herriko zenbait lan egin ahal izateko

Arrasateko Udalak dirulaguntza eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari Merkataritza Indartzeko Plan Bereziko hiru proiektu egiteko: Erguin auzorako eskailera mekanikoak egiteko (1.400.000 euro pasatxoko aurrekontua dute lanok), Herriko Plaza nagusia argiztatzeko (57.500 euro pasatxoko aurrekontua) eta Santa Marinako haur parkea egiteko (33.000 euro pasatxoko aurrekontua).

Domekan EHNaren Tramitazio Eguna, Bai EHri ekimenak antolatuta

U.M.

Etzi, domeka, EHNaren Tramitazio Eguna dela adierazi du Bai Euskal Herriari izeneko herri ekimenak. Besteak beste, arrasatearrei dei egiten die Udaletxe aurrean elkartu eta EHNA egiteko.

Naziotasun eskubidearen aldeko agiria. Hala, definitu zuten Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek EHNA. EHNA eginez Euskal Herriaren eskubideak (herri izaera, hizkuntza propioa) eta euskal herritartasuna aldarrikatzen direla adierazi zuten

astelehenean prentsaurrekoan. Hala, hori guztiori bultzatzeko eta indartzeko, EHNaren Tramitazio Eguna deitu dute etzira, domeka. Hala, herriko plazan elkartu eta EHNA egiteko deia egin diete arrasatearrei. Era berean, gogorarazi zuten EHNA egiteko hiru argazki, errolda agiria eta 12 euro nahikoa direla.

20 TALDEREN BABESA

Bai Euskal Herriari herri ekimenak 20 talderen atxikimenduak lortu ditu Arrasaten EHNaren aldeko ekimena babesteko. Besteak beste, atxikimenduen

arte honako hauek daude: Centro Cultural Andaluz, Arrasateko EA, ESK, LAB eta CCOO sindikatuak, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak, Arrasateko Bilgune Feminista, Mondra futbol taldea eta Arrasate Errugbi taldea.

Horrez gainera, Arrasaten 2.000 sinadura baino gehiago jasotzen ibili direla adierazi zuten eta dagoeneko 16.000 lagun baino gehiagok dutela EHNA poltsikoan. Horrekin batera, salatu zuten gaur egun, eta Arrasateko alkatearen aginduz, EHNA ezin dela Arrasateko Udalean tramitatu.



Arrasateko 20 talderen atxikimendua lortu dute EHNaren alde.




GOIKOBALU ABESBATZA EUSKALDUNAN

Goikobalu abesbatzakoek kontzertua egin zuten eguenean eta egubakoitzean Bilboko Euskalduna Jauregian. Kontzertuan izan zirenek Goikobalu abesbatzaz gain, Bilboko Koralez eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaz gozatu ahal izan zuten. Juanjo Menak zuzentzen duen Bilboko Orkestrarekin batera, Goikobalukoek Gustav Mahler-en *Piztuera* lana interpretatu zuten. Biak hala biak kontzertu ikusgarriak izan ziren.



JOKIN LABAIEN BIGARRENA IZAN ZEN ZESTOAKO BERTSO SAIOAN

Egubakoitzean bertso saioa izan zuen Jokin Labaien mondragoetarrak Zestoan. Gipuzkoako Txapelketara sailkatzeko baliagarria zen, eta Jokinek bigarren postua eskuratu zuen. Bertso saioan, baina, ez zen bakarrik egon, trajez jantzitako koadrilako lagunak ere han izan ziren-eta. Azken bertsoan, jertse azpitik eskapularioa atera eta agur-bertsoa bota zuen Jokinek. Arrasatera etortzeko irrikan egongo zen, seguru.



'ZIPI' ETA 'ZAPE': AURRERANTZEAN FORMAL!!!

Aurrerantzean, *Zipi* Loitik eta *Zape* Zaitegik okerkeria gutxi egingo dituzte. *Zape* Zaitegi zapatuan ezkonduko da, Oñatin. *Zipi* Loitiri, berriz, bi aste geratzen zaizkio maltzurkeriak egiteko.

Bi *anaia* horien ezkon aurreko agurra irailaren 21ean egin zuten, Logroñon. San Mateoak zirela aprobetxatuta, STSkoak Errioxan izan ziren asteburu osoan. Zorionak, bieii!!! Sasoe eta solomue!!!

1949AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Urtero moduan, 1949an jaiotakoek egun pasa polita egiteko aukera izango dute urriaren 18an. Goizean, hildako kintoen omenez meza izango dute San Frantzisko elizan, eta ondoren Musakolako Hostalean bazkalduko dute. Argazkian ikusten denez, joan den urtean koadrila handia elkartu zen, eta aurten ez dira gutxiago izango. Izena eman gura duenak Lore edo Zabaleta dendetan izango du horretarako aukera.



Maritxu Kajoiaren aurtengo miraria: gauean euririk ez, eta loteriako saria herrira

ARRASATE PRESS

Eguenean, Maritxu Kajoi bezperan, euria barra-barra egin zuen, baita egubakoitz goizean ere. Zorionez, 19:00etan atertu egin zuen eta gau osoan ez zuen euri gehiagorik egin. Eguraldiari esker, Kondekuan ipini zituzten zortzi txosnek ondo eutsi zioten kalean pilatutako jende andanari. Horrela, Maritxu Kajoiaren jarraitzaileak tabernetan bakarrik ez, kaleetan ere ibili ahal izan ziren, dotore-dotore jantzita.

Iluntzean Herriko Plaza bete-bete egin zen eta koadrilek lore eskaintza egin zutenerako, sekulako giroa zegoen. Maritxuren kutxatxoaren inguruan ipinitako arkuari su eman zioten, eta plazako jendea dantzan hasi zen. Sua itzaltzean eta txaranga alden du zenean, guztiek zuten galdera bera: zein izan da aurtengo miraria? Loteriak herrian eman berri duen saria izan ei da miraria.

ARGAZKIAK: ARRASATE PRESS

Eguraldi txarra iragarri bazuten ere, gauean ez zuen euririk egin eta giro paregabea izan zen



Maritxuko arkuari su eman ziotenerako jendea dantzan zebilen.



Batek baino gehiagok egin zuen topa Maritxuren izenean.



Herritarrek, normalean ez bezala, pozik jarri ziren argazki-kamera aurrean.



Gaztetxoek ere hasi dira dagoeneko Maritxu Kajoi jaiaz gozatzeko; hori azkar ikasten da.



Aurten ere eskapulario eske ibili da jendea kalean.



Udalan bazkaldu zutenek nahiko lan izan zuten Arrasatera jaisten.



Auto klasikoak ukitu dotorea eman dio aurten ere Maritxu Kajoiri.



Nagusiez gain, koadrila gazteek ere inoiz baino dotoreago janzteko aprobeztatu zuten Maritxu Kajoi.



Mondragoetar asko zebilen kalean, baina kanpotarrek ere ez zuten kalerik egin.



Maritxu Kajoi gauean ospatzen den arren, gazteek eguerdian hasi zuten parranda.



Koadrilakoekin elkartzeko egun aproposa da Maritxu.

FUTBOLA

Biharamunarekin eta euripean, baina Mondra 1-2 nagusitu zitzaion liderrari

Norgehiagoka ikustera Iruneraino joan zirenek ez zuten partidua gozatu, baina lortutako hiru puntuengatik merezi izan zuen haraino joatea

XABIER URZELAI

Partidu txukuna eginez gero kontrario gutxi dituela erakutsi zuen Mondrak joan den zapatuan. Arrasateko taldeak joko ikusgarria egin barik seriotasun handiaz jokatu zuen, eta Real Union taldeak ezin izan zuen ezer egin, nahiz eta etxean jokatu.

Beste behin argi geratu zen preferente mailako epaileek penaltia adierazteko sekulako erraztasuna dutela: Real Unionen eta Mondraren arteko partiduan bi penalti adierazi zituen epaileak. Lehen Mondraren kontrakoa izan zen, 24. minutuan. Penalti horri esker liderra aurreratu egin zen markagailuan, baina, zorionez, ez zen partiduko penalti bakarra izan: 10 minutu geroago, epaileak Mondraren aldeko penaltia adierazi zuen. Jon Muruak norgehiagoka berdintzea lortu zuen (1-1). Lehenengo zatiko azken minutuetan euria hasi zen, eta nola, gainera! Bigarren zatira arte ez zen aukera garbirik izan.

JOKOA ZATARTU

Bigarren zatiko gauza azpimarragarri bakarra Mondraren bigarren gola izan zen. Euririk ez zion zeingehiagokari askorik lagundu, jokoa erabat zatartu zen-eta. Real Unionek gora egin



Liderraren zelaian irabazi eta gero, bihar Atxabalpen irabaztea du helburu Arrasateko taldeak.

ARTXIBOA

zuen, neurri handi baten epailearen laguntzarekin. Gola, baina, ez zuen liderrak egin, Mondrak egin zuen: atezain irundarraren huts bat bikain aprobetxatu zuen Ekain Garin aurrelariak. Jokaldi horretan argi ibili zen Arra-

sateko jokalaria, eta garaipenaren gola egin zuen (1-2).

Egin beharrekoea eginda zuen Mondrak, eta bigarren zatian defentsa lanetan buru-belarri ibili ziren arrasatearrak. Real Union partiduari buelta ematen saiatu

zen, norgehiagokako azken minutura arte, gainera. Oraingoan, baina, zortea mondragoetarren alde egon zen, eta puntuak Arrasatera ekarri zituzten.

Mondrak Beti Gazte taldearen kontra jokatu du bihar,

Zapatuan argi geratu zen preferente mailan penaltiak erraz adierazten dituztela

Real Unioni irabazi eta gero, Mondra goiko postuetan dago berriro ere

Mondrak erregionaleko txapelkunaren kontra jokatu du bihar arratsaldean

16:30ean, Atxabalpen. Lesakarrak erregional mailako finalean nagusitu ziren (4-1) eta errebantxa hartzeko aukera ezin hobea da.

Zaldibarko Txapelketa antolatzen dabilta, baina jendea behar da

X.U.

Zaldibarko Txapelketako antolatzaileak dagoeneko hasi dira areto futboleko txapelketa antolatzen. Txapelketa urriaren bukaeran edo azaroko lehenengo asteburuan hasiko da; oraindik, baina, lan handia dago egiteko.

Zaldibarko Txapelketa antolatzeko laguntzaileak behar dira. Antolakuntzakoak hasi dira lanean, baina oraindik ez dira asko, eta horrelako txapelketa bat aurrera ateratzeko jende asko behar da.

BERRIKUNTZA BATZUK

Aurten hainbat aldaketa izango dira Zaldibarko Txapelketan. Batetik, joko gogorra eteteko asmoarekin, antolatzaileek bost falten araua probatu gura dute. Antolatzaileek ez dakite joko gogorrarekin amaitzeko erabaki



Joan den urtean AT Celaya taldea izan zen onena.

ARRASATE PRESS

egokiena izango den, baina argi dute zerbait egin behar dutela.

Horrekin batera, txapelketaren beste arazoetako bat protestena da; taldeek askotan ez dituzte antolatzaileek hartzen dituzten erabakiak ulertzen; ez zaizkie bidezkoak iruditzen, eta horre-

gatik, aurten gerta liteke talde bakoitzak ordezkari bana izendatu behar izatea. Ordezkari horrek antolatzaileek egiten dituzten bileretara joan beharko du, eta bilera horietan hartzen diren erabakien gainean eztabaidatzeko aukera izango du.

Arrasate Ointxek 88-72 galdu zuen Padura taldearen kontra

X.U.

Arrasate Ointxe Saskibalo Taldeak ezin izan zuen Paduraren kontrako partidua irabazi. Arrigorriagakoak aurretik izan ziren beti, baina Arrasateko taldeak zailtasunak jarri zizkion talde bizkaitarrari.

Orain arte jokalaria izandako Gorka Zurutzak zuzendu zuen Arrasateko taldea, eta oñatiarrak lan txukuna egin bazuen ere, taldeak ezin izan zuen norgehiagoka irabazi. Arrigorriagako kantxatik puntuekin etortzea ez da bate-erreza, eta domekan argi geratu zen hori.

Padura taldea bikain hasi zen, lehenengo hamar minutuetan hiruko sei saskiratze egin zituen-eta. Arrasateko taldea esnatu zenerako Padurak alde polita zuen (32-19).

Bigarren laurdenean Mondragoeko taldeak estutu egin zuen eta minutuek aurrera egin aha-

la alde txikitzen joan zen. Horrela, bigarren laurdenean amaieran Arrasate Ointxek berriro ere norgehiagoka irabazteko aukera zuen (47-42).

Hirugarren laurdenean mondragoetarrek ondo eutsi zitoten partiduari, eta laugarren laurdenean markagailuari buelta emateko aukera izan zuten (70-66). Orduan, baina, Arrasate Ointxe taldeko jokalaria indar barik geratu ziren, azken bultzada emateko aukera barik. Padurak, berriz, ez zuen horrelako beharadarik izan, eta bizkaitarrek bikain aprobetxatu zituzten azken minutuak (88-72).

BIHAR ITURRIPEN

Ibarreko jokalariz osatutako taldeak etxean jokatu du bihar. 18:00etan, Arrasate Ointxe Saskibalo Taldeak Iruñeko Erro y Eugi taldearen bisita izango du. Nafarrak seigarren postuan daude; Arrasate Ointxe zortzigarren lekuan dago.

ESKUBALOIA

Arrasate Eskubaloi Taldeak asteburuan hasiko du 2003-04 denboraldia

Arrasate Eskubaloi Taldeak bost talde izango ditu, eta otsailean beste talde bat sortuko dute: kadete mailako neskena, hain zuzen

XABIER URZELAI

Arrasate Eskubaloi Taldeak 88 fitxa egin behar izan ditu asteburuan hasiko den denboraldirako. Jokalari horiek guztiak bost taldeetan banatu dituzte, eta horietako hiru senior mailakoak dira.

Asteburuan hasiko dute Arrasateko eskubaloi taldeek denboraldia. Lehen territorial mailan, AGR Arrasatek Usurbilen kontra jokatuko du domeka eguerdian. Bigarren territorial mailan, berriz, denboraldiko lehenengo derbia izango da: Arrasate B eta Arrasate C taldeek indarrak neurtuko dituzte zapatu arratsaldean, 16:30ean, Musakolako kantxan.

Gazte mailan, mondragoetarrak legazpiarren kontra jokatuko dute bihar; norgehiagoka Legazpin izango da, 17:30ean. Azkenik, kadete mailakoek Iturripen jokatuko dute domekan, 10:30ean, Leitzaran taldearen kontra. Bost talde horiek zuzentzea ez da lan batere erraza izango.

Pitxi Herrero izango da talde nagusiko entrenatzailea. Joan den urtean senior mailako bigarren taldea zuzendu zuen Herrorek, eta aurten talde nagusiarekin izango da, helburu zorrotzenak izango dituen taldearekin, hain zuzen ere.

BERNARDO BALERDI GAZTE MAILAN

Joan den urtean senior mailako AGR taldea zuzendu zuen Bernardo Balerdik, eta urte nekagarria izan zen. Arrasateko talde nagusiak gutxigatik ez zuen goiko mailarako txartela eskuratu, eta aurten entrenatzaile mondragoetarrak lasaiago ibili gura du. Bernardo Balerdi harrobiaz arduratuko da, gazte mailako taldean izango da-eta.

Bigarren territorial mailan bi talde izango ditu Arrasatek: Arrasate A taldearen ardura Jon Akixuk eta Manuel Lopezek izango dute; Arrasate B taldea, berriz, Andoni Arandok zuzenduko du. Eta, azkenik, Asier Vinuesa arduratuko da talde gazteenaz, kadete mailako taldeaz.



AGR Arrasate taldeak goiko postuetan egotea izango du helburu, nahiz eta jokalariek gazte asko eduki.

ARRASATE PRESS

ZEURE BURUA BETI EDER IKUSTEA GUSTUKO DUZU? BADAKIZU ZER EGIN DEZAKEGUN ZUGATIK?

Tratamenduak:

- Aurpegikoak
- Gorputzekoak LIPOFIT IT TAC-ekin
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari hotz eta beroarekin
- Laser bidezko depilazioa medikuarekin
- Makillajea
- Solariuma
- Gorputz peeling-a algekin
- Kirurgia estetikoa
- Ezpainak eta masailalboak handitu
- Azaleko orbanak
- Aurpegia gazteagotu mesoterapiarekin
- Ilea erortzearen aurkako tratamendua mesoterapiarekin.
- Loditasuna tratatu dieta pertsonalizatuekin.
- Barize eta kouperoak.

Analisi pertsonalizatua, behar duzun tratamenduaren diagnostia egiteko.

Orain, zure gorputzarekin gusturago egon zaitezke.

MIREN GARAI

Zarugalde 23-2 ezkerrean.

Tel.: 943 79 96 90

Agnaga medikuarekin (1.806 elkargokide zenbakia).
Eskatu eguna eta ordua.



ANTZERKIA/ Domekan Titzina antzerki taldeak 'Folie A Deux' lana eskainiko du Amaia Udal Antzokian

Titzina antzerki taldeak buru-gaixoen sentimendu eta esperientziak azalduko ditu

IKER BARANDIARAN

Domekan Titzina taldeak *Folie a deux, sueños de psiquiátrico* antzezlana eskainiko du Amaia Udal Antzokian. Ikuskizuna 19:30ean izango da, eta ordu eta erdi iraungo du. Titzinako partaideen esanetan, ikuskizunean barre eta negar egiteko aukera izango da.

Titzina antzerki taldeak gai berezia aukeratu du ikuskizun horretarako. Buru-gaixotasunak eta zoramena aztertu gura izan ditu. Horretarako, taldeko zuzendari eta aktore nagusiek, Diego Lorcak eta Pako Merinok, gai hori hobeto ezagutzeko ikas-prozesu sakona egin dute: lehenik eta behin, buru-gaixotasunaren gaineko liburu mordoa irakurri dituzte. Horren ostean, hainbat psikiatrarekin eta zenbait gaixoren senitartekoekin elkarrizketak egin dituzte. Gero, bi hilabetez ospitale psikiatrikoak bisitatu dituzte.


Behin informazio hori guztiori jasota, antzezlanoen pertsonaiak landu zituzten. Ikuskizunean, psikiatriko bateko gaixoak, horien senitartekoak eta ospitaleko langileak ezagutuko ditugu. Diego Lorcak eta Pako Merino aktoreez gain, musikari-aktore batek ere lagunduko die, zuzenean musika eginez.

BURU-GAIXOENGANDIK IKASI

Titzina taldeko partaideen esanetan, hainbat kasutan zoramenak eta buru-gaixotasunak gizar-tean beldurra eta bazterkeria eragiten dute, eta galdera asko sortzen dituzte. Baina Titzinako ustez, buru-gaixotasunak badute beste alde batzuk: kasu batzuetan ustezko zoramenari esker irudimena asko garatu dute, eta jenio artistikoak sortu dira. Horra hor, esaterako, Van Gogh, Dali, Nietzsche, Artaud...

Titzina taldeak buru-gaixotasunak dituztenengandik ikasi du, eta ikusleei ezagutza hori aditzera eman gura digu. Antzerki taldearen esanetan, ikuskizunean barre eta negar egiteko aukera izango du.

Besteak beste, *clown*-a, antzerkia, musika, komedia eta melodrama uztartuko dituzte.



Diego Lorcak eta Pako Merinok egingo dituzte aktore lanak. Eta musikari batek zuzenean musika joko du.

ZINEMA/ Ziurrenik, datorren urtean Amaia Udal Antzokian film komertzialak emango dituzte

Udaleko Kultura Sailak herrian filmen eskaintza bermatu gura du

I.B.

Ekainean Alai zinema-aretoa itxi egin zuten. Oso lagun gutxi joaten ziren filmak ikustera. Hala, Alai itxi zutenetik herrian ez dago beste zinema-areto komertzialik. Orain, Udaleko Kultura Sailak zinema eskaintza bermatu gura du, eta horretan lanean dabil.

Alai zinema-aretoa itxi zutenetik hona, zinemazaleek Amaia Udal Antzokian eguenero egiten duten zinekluba bakarrik ikus dezakete. Udaleko Kultura Sailak gabezia horri konponbidea emateko premia ikusi zuen. Arrazoi horretatik, Udal gobernua eratu eta denbora gutxira, irailean, Kultura Saileko ordezkari batzuk Alai zinema-aretoaren jabearekin harremanetan jarri ziren.

Udalak ez du Alai kudeatzeko ardura hartzeko asmorik, baina zinema-aretoa bermatzen lagundu gurako du. Ines Aldai Kulturako Saileko arduradunaren esanetan, Udalak zinema-areto hori bultzatu eta babestu egingo du.

Udalaren asmoa da Alai aretoa berriro jartzea abian, baina hango jabeak ez du hori egiteko

asmorik. Eta erantzun hori argi eta garbi azaldu die Udaleko ordezkariak, izan dituzten elkarriketetan.

Udaleko ordezkariak oraindik ez dute aukera hori Alai zinema-aretoa berriro zabaltzea baztertu. Horretatik, egungo jabeak ez badu gura, Alai beste enpresaren batek kudeatzea gurako du. Baina orain arte aditzera eman dietenaren arabera, hala, korrik aurkitzea oso zaila izango dela ondorioztatu dute. Izan ere, egungo kontsumo-ohiturak kontuan hartuta, halako zinema-aretoa Arrasaten ez da oso bideragarria. Zenbait adituk Udaleko ordezkariak honako hau azpimarratu diete: gure herrian arrakasta eduki ahal izateko, proposena multizinemak dira. Horren-ordex, Alai moduko zinema-areto zaharrek film bakarrik ematen dutenak ez dute etorkizun handirik.

AMAIA UDAL ANTZOKIAN FILMAK EMAN


Hori guztia kontuan hartuta, Udala beste konponbide bat aztertzen ari da: herritarrentzako film eskaintza Amaia Udal Antzokian kokatzea, hain zuzen ere. Kultura Saileko arduradun Ines Aldaik azaldukoaren ara-

bera, ez dute antzoki hori zinema-areto soil bihurtuko. Horren ordez, antzoki horretan egiten den Udaleko kultura programazioari, film eskaintza gehituko diote. Ines Aldaik halaxe dio: "Orain arteko kultura programazioari traba egin barik eta ekintza guztiei eutsiz, zinema-areto zerbitzua gehi diezaiokegu. Ez du ezer galduko. Horren ordez, irabazi egingo du".

Aukera hori aztertzeke eta horren aldeko pausoak emateko, Udala harremanetan jarri da Amaia Udal Antzokian filmak emateko interesa duten hainbat enpresarekin.

Oraindik ez dute akordioarik sinatu, baina Kultura Saileko ordezkariak itxaropentsu daude, uste dutelako udal antzokiarekin baliatuz zinema gabeziari konponbidea aurkituko diotela.

Hala ere, badakite negoziatzeko orduan zailtasunak egon daitezkeela. Azken baten, Ines Aldaik azpimarratu duenaren arabera, Udaleko kultura programazioak antzokian emango den zinema areto zerbitzua baldintzatuko du. Edozelan ere, zailtasunak zailtasun, datorren urterako zinema aretoa edukiko dugula iragarri dute.



Orain dela bi urte, Amaia Udal Antzokian berritze lanak egin zituzten.

E, TXO!

TALDE MEXIKAR BATEN KONTZERTUA GAZTETXEAN

Eguenean, urriaren 16an, Compadres Muertos talde mexikarrak kontzertua egingo du gaztetxean. 19:30ean izango da, eta punk-rock doinuak eskainiko dituzte.

TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatuko dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Hala, Txikilandian begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du, eta zera eraman: NAREN fotokopia eta argazki bat, hain zuzen ere. Horren gaineko informazio zabalagoa behar izanez gero, dei ezazu honako telefonora: 943 79 54 46.

KUTXA FUNDAZIOAREN LITERATURA SARIAK

Kutxa Donostia Hiria literatura sariak antolatu ditu Kutxa Fundazioak. Hainbat mailatan banatuta dago lehiaketa hori: gaztelaniazko ipuina eta antzerki lana eta euskarazko ipuina eta antzerki lana.

Urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira lehiaketarako lanak. Informazio zabalagoa gura izanez gero, www.gipuzkoa.net webgunera jo dezakezue edo zenbaki honetara deitu: 943 41 11 57.

JUAN SAN MARTIN BEKARAKO DEIALDIA

Botanikaren edo mendi-zaletasunaren gaineko ikerketa egiteko beka deialdia egin du Eibarko Udalak. Urriaren 13ra arte duzue eskaerak egiteko epea. Informazio zabalagoa izango duzue www.gipuzkoa.net/eibar webgunean.

ELKARRIZKETA / Izaskun Forkada

“Arrasatearrei dantzatzeko disfrutatzen eta oinarrizko koreografia erakutsiko diet”

IKER BARANDIARAN

Izaskun Forkada andoaindarrak hip-hop musika dantzatzeko ikastaroa emango du Arrasaten, Txatxilipurdiren eskutik. Izaskun Forkadak ibilbide luzea egin du dantzan, eta gaur egun ETBko Show BT saioan dabil lanean.

Oso txikitatik egiten duzu dantza?

Bai, ia jaio nintzenetik. Oso txikitik, musika entzuten nuen bakoitzean, dantzan hasten nintzen. Amari eta aitari ere dantza asko gustatzen zaie, eta ni izugarri zaletu nintzen. 7 urterekin euskal dantzak ikasten hasi nintzen eta 13 urterekin, jazza.

Noiz erabaki zenuen dantzatik bizi izatea?

Aspaldi. Oso argi nuen dantza nire kontua zela, eta dela. Jazz musika dantzatzeko hasi nintzenean, horretaz bizi izatea erabaki nuen.

Zein ikasketa egin dituzu, eta non?

Ikastaro mordoia egin ditut. Txikitik egindakoez gain, afro-jazz, jazz eta dantza garaikidea ikasi ditut, besteak beste. Horrez gain, 1992tik gaur egunera arte Valentzian, Bartzelonan, Galizian eta Zaragozan dantza horietan espezializatzeko ikastaroak egin ditut. 1992an Euskal Herriko Aerobik Txapelketan parte hartu nuen eta lehenengo saria eskuratu nuen. Espainiako Txapelketan, berriz, ez nuen ezer irabazi. Dena dela, ez dut gustuko lehiatzea. Artearekin txapelketak egitea ez dut ondo ikusten.

Zein musika dantza egiten duzu eta zein duzu dantzatzeko gustukoak?

Ia denetik egin dut dantza. Baleta ez dut gustuko, eta tangoekin ez naiz saiatu, baina bestela, dantza asko probatu ditut, horien artean areto dantzak. Entzuteko gustuko dudana musika eta dantzatzeko gura dudana bereiztuko ditut. Dantzatzeko musika erritmikoa eta alaiak dut gustukoak.

Aspalditik irakaslea ere

bazara. Zein eskola eman dituzu?

Andoainen funkya eta aerobikeko eskolak eman nituen; Zizurkilgo kultura etxean funkya ematen dut, baita Donostiako dantzarien gune baten ere. Eta Oreretako kiroldegian aerobika eta funkya irakasten nituen. Hamar urtean -jarraian- aerobikeko eskolak eman nituen, eta dagoeneko utzita dut. Orain funky eta hip-hop eskolak ematen ditut. Ikastaro iraunkor horiez gain, tarteka hainbat herritatik deitzen didate behin-behineko ikastaroak emateko.

Azkenaldian ETBn egunero agertzen zara...

Bai, joan den urtea ezkerko Show BT saioan umeei dantza egiten eta abesten erakusten nabil. Dantza-ko eskolak ematen dizkiet, eta eszenatokian zelan egon behar duten erakusten diet. Oso pozik nago, lantaldean oso lagun gazte eta jatorrak daude-eta.

Dantzatzeko gainera, musika taldeekin abesten ikusi zaitugu...

Bai, txikitatik daukat abesteko zaletasuna. Bap!, Hechos Contra el Decoro eta Bad F-Line taldeen diskoetan ahotsak sartu nituen; Nacion Reixa eta Negu Gorriak taldeekin zuzenean abes-



tu eta dantza egin nuen; Naun taldearen hasieran parte hartu nuen, eta lagun batzuekin 2Kate taldea sortu genuen.

Zer erakutsiko diezu Arrasaten ikastaroan parte hartuko duten gazteei?

Lehenik eta behin, dantza egiten disfrutatzen erakutsiko diet. Horrez gain, funky eta hip-hop musikak dantzatzeko oinarrizko koreografia erakutsiko diet. Bi ordu eta erdiko saioak izango dira, eta asko ikas daiteke.

Gazteei zuzendutako hiru ikastaro

Txatxilipurdi elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu urritik abendura bitartean: hip-hop, grafiti eta judo ikastaroak, hain zuzen. Izaskun Forkada andoaindarrak hip-hop musika dantzatzeko ikastaroak emango ditu. Urriaren 11n, 18an eta 25ean egingo dituzte, Musakolako kiroldegian.

Hibai Garai arrasatearrak, berriz, grafiti eskolak emango ditu. Urriaren 16tik abenduaren 11ra arte, egunero, Erguingo gazte txokotan batuko dira. Eta Julen Asurmendik judo eskolak emango ditu, urriaren 15etik abenduaren 11ra arte, eguaztenero, Musakolako gazte txokotan.

Ikastaro guztiak arratsaldean izango dira eta plaza mugatuak izango dituzte. Hip-hop eta grafiti ikastaroetan parte hartzeko matrikula sinbolikoa ordaindu beharko da, hiru eurokoa, hain zuzen ere. Judoko eskoletan parte hartzeko, ostera, ez da ezer ordaindu beharko. Ikastaroetan ize-

na emateko epea bukatzeaz dago, taldeak bete ez badira, behintzat. Hortaz, jo lehenbailehen Txatxilipurdiren bulegora (Pablo Uranga kalea) edo deitu 943 79 54 46 telefonora (Jasone).

Aurten, lehenengo aldiz, Txatxilipurdik herriko gazteei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Gazte horiek bete behar duten baldintza bakarra da 12 eta 18 urte artean izatea.

Orain arte, berriz, Txatxilipurdik antolatu dituen ikastaro guztiak gazte txokoetako erabiltzaileendako izan dira: muralak egiteko, film laburren, sabel dantza, sukaldaritza, talogintza, eta beste asko.

Txatxilipurdiko arduradunek gazte txokoak ezagutzera emateko ahalegina egin dute. Ikastaro horien bitartez, gazte txokoak non dauden, nortzuek erabiltzen duten eta zein aukera ematen dituzten aditzera eman gura dute.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BEHEKOTAILLERRETIK

Agustin Gallastegi

GALLASTEGI MOTOR SPORT

XABIER URZELAI

Agustiñek 15 urte egin ditu Agustin Auto Soinua taillerrien lanien. Oin, baiñe, semiekin batera dabil, eta taillerreko izena aldaketie erabaki euen, irrati kontuez aparte, beste gauza asko egitten dittue-eta. Automobile txukun euki gure badozue, Gallastegi Motor Sport dendan biherrezko dana topauko dozue.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Mekaniko. Etxien hori ikusi izen dot, eta lanbide hori gure neuen.

Orduen, gustora ibilliko zara lanien.

Egixe esatiarren, lan neketsue da, baiñe bai, gustora nabil.

Drogak legalizauko zeuke?

Baietz uste dot.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Irratixen gauza asko entzuten die, baiñe ezer argirik ez.

Nora juengo zitzake gustora?

Uharte txikiren batera.

Bizio bat?

Ez dauket bizio haundirik.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Denporie eukittie.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Trafikuen arazue konpondu egin dala. Ez diela 15 miñutu biher Mondraguetik urteteko.

Ze da gehixen egitten dozuen lana?

Gauza asko egitten dittugu: irrati, telebisiñuek, GPS eta DVD aparatuek ipiñi eta automobilien mantenu lanak egin.

Potentzia haundiketako txipak jarten ditzuzue.

Bai, hori be egitten dogu.

Eta ze moduzko emaitzak emuten daue?

Guk ez dogu arazorik euki; kontua da norberak zelan konduziduten dauen. Astakillo baten moduen dabilenak edozein motor erreko dau, txipakin edo txip barik. Turbodiesel motorrak zaindu egin



“Automobile txukun eukittie ondo dau, baiñe jentiek sekulako astakerixek egitten dittu”

biher die: automobile berotu barik dauenien emun ezkerro, motorrak sufridu egitten dau, eta txipa euki ezkerro, kalte haundixague egitten jako. Ondo ibilliz gero, txipak emuten dauen potentzia asko igerten da, eta ez dau arazorik emuten.

Jentiek diru asko gastetan dau automobilien?

Danetik dau. Batzuk ez daukie bilddurrik dirue gastetako; beste batzuk merkiena eskaketan daue.

Irrati asko jarten ditzuzue; musikie ondo entzuteko horrenbeste altaboz biher die?

Musikie ondo entzuteko hiru altabozekin nahikue da. Beste gauza bat da musikie zeuk entzun biher dozun edo mundu danak

“Danetik egitten dogu: irrati, GPS edo DVD aparatuek ipiñi, mantenu lanak egin...”

entzutie gure dozun.

Irrati marka bat?

Marka askokin egitten dogu lan, baiñe Alpine azpimarrauko neuke. Hori bai, ondo pagaute ez dau irrati txarrik.

Irrati ona eukitte, alarma ona jarri biher.

Egixe esatiarren, aspaldixen lapurretak behera egin daue. Jentiek ez dau lapurtutako materixalik erosten, eta horregatik ez da lehen moduen osten. Hala eta be, alarma on batek beti lagunketan dau, atzera botateko ez bada be.

Zeure automobilari aldatu dutzezu zerbait?

Irrati ona dauket, baiñe ez dauket gauza espezialik.


NIREBIDAIAHURA/ Illart Azkarate

Korsika / 2003ko abuztuan

Joan den astean Korsikako ekialdean utzi genituen Illart eta neskalaguna. Hegoaldeko eta ekialdeko kosta bisitatu eta gero, barrualdera egin zuen bikoteak: “Barrualdean aldapa handiagoak daude, baina nor bere erritmora zihuan, eta ez zitzaigun horren gogorra egin”. Korsikako barrualdea izugarri gustatu zitzaion Illarti: “Gutxitan ikusi ditut horrelako baso eta errekek, oso ikusgarria zen”. Barrualdeko portuak igotzen zebiltzala, Illarti pedala hautsi zitzaion. Baina Korsikan ez dago gura beste bizikleta denda: “Korsikan hiru bizikleta denda baino ez daude, eta hurrena Ajaccion zegoen, bidaia hasi genuen lekuan”. Ajacciora autobusean joan ziren: “Autobus gidaria lasterketa batean zihuala zirudien, taxiak aurreratzen. Hangoak zakarrak dira gidatzen, oso zakarrak izan ere”.

Bizikleta konpondu eta gero, Ajacciotik iparraldera egin zuen bikoteak: “Bagenekien eskualde hura oso polita zela; lagunek esan ziguten Ajacciotik gora derrigor egiteko eskualde hura ikusi barik ez itzultzeko. Amildegia artean egindako errepideetan ibili ginen, eta ibilbide politik egiten genituen”.

Hogeia eguneko bidaia egin eta gero, Euskal Herrira itzultzeko ordua iritsi zitzaion. Illart pozik etorri zen Korsikatik, gustura, baina baita nolabait penatuta ere: “Uste genuen Korsikan sentimendu abertzale handiagoa egongo zela, baina guk, behintzat, ez dugu horrelakorik ikusi. Izan ere, erreferenduma orain dela gutxi izan dute, eta beste giro bat espero nuen, abertzaleagoa, alegia. Egia da abuztuan turistak baino ez daudela han, eta neguan joanez gero gauzak ezberdinak izan daitezkeela. Jendearekin gai horren gainean berba egiten hasten ginenean, berehala mozten zuten, gai horren gainean berba egitea kome ni ez balitzaie bezala. Korsikan turismo handia dago, frantses eta italiar asko dago han, eta baliteke horrelako kontuek turismoari kalte egitea. Horrek pena eman dit; gainontzean, leku ikusgarria da Korsika”.



“Ez dugu giro abertzalerik topatu, eta horrek pena eman dit”

XABIER URZELAI



Carges-en egindako argazkia, Ajacciotik kilometro gutxira.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Aretz
Taberna
Markole 5
943 79 14 67
ARETXABAETA

Mobiliario
ARENAZA
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

E, TXO!

TALDE MEXIKAR BATEN KONTZERTUA GAZTETXEAN

Eguenean, urriaren 16an, Compadres Muertos talde mexikarrak kontzertua egingo du gaztetxean. 19:30ean izango da, eta punk-rock doinuak eskainiko dituzte.

TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatuko dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Hala, Txikilandian begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du, eta zera eraman: Naren fotokopia eta argazki bat, hain zuzen ere. Horren gaineko informazio zabalagoa behar izanez gero, dei ezazu honako telefonora: 943 79 54 46.

KUTXA FUNDAZIOAREN LITERATURA SARIAK

Kutxa Donostia Hiria literatura sariak antolatu ditu Kutxa Fundazioak. Hainbat mailatan banatuta dago lehiaketa hori: gaztelaniazko ipuina eta antzerki lana eta euskarazko ipuina eta antzerki lana. Urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira lehiaketarako lanak. Informazio zabalagoa gura izanez gero, www.gipuzkoa.net webgunera jo dezakezue edo zenbaki honetara deitu: 943 41 11 57.

JUAN SAN MARTIN BEKARAKO DEIALDIA

Botanikaren edo mendi-zaletasunaren gaineko ikerketa egiteko beka deialdia egin du Eibarko Udalak. Urriaren 13ra arte duzue eskaerak egiteko epea. Informazio zabalagoa izango duzue www.gipuzkoa.net/eibar webgunean.

ELKARRIZKETA/ Izaskun Forkada

“Arrasatearrei dantzatzeko disfrutatzen eta oinarrizko koreografia erakutsiko diet”

IKER BARANDIARAN

Izaskun Forkada andoaindarrak hip-hop musika dantzatzeko ikastaroa emango du Arrasaten, Txatxilipurdiren eskutik. Izaskun Forkadak ibilbide luzea egin du dantzan, eta gaur egun ETBko *Show BT* saioan dabil lanean.

Oso txikitatik egiten duzu dantza?

Bai, ia jaio nintzenetik. Oso txikitik, musika entzuten nuen bakoitzean, dantzan hasten nintzen. Amari eta aitari ere dantza asko gustatzen zaie, eta ni izugarri zaletu nintzen. 7 urterekin euskal dantzak ikasten hasi nintzen eta 13 urterekin, jazza.

Noiz erabaki zenuen dantzatik bizi izatea?

Aspaldi. Oso argi nuen dantza nire kontua zela, eta dela. Jazz musika dantzatzeko hasi nintzenean, horretaz bizi izatea erabaki nuen.

Zein ikasketa egin dituzu, eta non?

Ikastaro morderoa egin ditut. Txikitik egindakoez gain, afro-jazz, jazz eta dantza garaikidea ikasi ditut, besteak beste. Horrez gain, 1992tik gaur egunera arte Valentzian, Bartzelonan, Galizian eta Zaragozan dantza horietan espezializatzeko ikastaroak egin ditut. 1992an Euskal Herriko Aerobik Txapelketan parte hartu nuen eta lehenengo saria eskuratu nuen. Espainiako Txapelketan, berriz, ez nuen ezer irabazi. Dena dela, ez dut gustuko lehiatzea. Artearekin txapelketak egitea ez dut ondo ikusten.

Zein musika dantza egiten duzu eta zein duzu dantzatzeko gustukoak?

Ia denetik egin dut dantza. Baleta ez dut gustuko, eta tangoekin ez naiz saiatu, baina bestela, dantza asko probatu ditut, horien artean areto dantzak. Entzuteko gustuko dudana musika eta dantzatzeko gura dudana bereiztuko ditut. Dantzatzeko musika erritmikoa eta alaia dut gustukoak.

Aspalditik irakaslea ere

bazara. Zein eskola eman dituzu?

Andoainen funkya eta aerobikeko eskolak eman nituen; Zizurkilgo kultura etxean funkya ematen dut, baita Donostiako dantzarien gune baten ere. Eta Oreretako kiroldegian aerobika eta funkya irakasten nituen. Hamar urtean -jarraian- aerobikeko eskolak eman nituen, eta dagoeneko utzita dut. Orain funky eta hip-hop eskolak ematen ditut. Ikastaro iraunkor horiez gain, tarteka hainbat herritatik deitzen didate behineko ikastaroak emateko.

Azkenaldian ETBn eguneroko agertzen zara...

Bai, joan den urtea ezkerreko *Show BT* saioan umeei dantza egiten eta abesten erakusten nabil. Dantza eskolak ematen dizkiet, eta eszenatokian zelan egon behar duten erakusten diet. Oso pozik nago, lantaldean oso lagun gazte eta jatorrak daude-eta.

Dantzatzeko gainera, musika taldeekin abesten ikusi zaitugu...

Bai, txikitatik daukat abesteko zaletasuna. Bap!, Hechos Contra el Decoro eta Bad F-Line taldeen diskoetan ahotsak sartu nituen; Nacion Reixa eta Negu Gorriak taldeekin zuzenean abes-



tu eta dantza egin nuen; Naun taldearen hasieran parte hartu nuen, eta lagun batzuekin 2Kate taldea sortu genuen.

Zer erakutsiko diezu Arrasaten ikastaroan parte hartuko duten gazteei?

Lehenik eta behin, dantza egiten disfrutatzen erakutsiko diet. Horrez gain, funky eta hip-hop musikak dantzatzeko oinarrizko koreografia erakutsiko diet. Bi ordu eta erdiko saioak izango dira, eta asko ikas daiteke.

Gazteei zuzendutako hiru ikastaro

Txatxilipurdi elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu urritik abendura bitartean: hip-hop, grafiti eta judo ikastaroak, hain zuzen. Izaskun Forkada andoaindarrak hip-hop musika dantzatzeko ikastaroak emango ditu. Urriaren 11n, 18an eta 25ean egingo dituzte, Musakolako kiroldegian.

Hibai Garai arrasatearrek, berriz, grafiti eskolak emango ditu. Urriaren 16tik abenduaren 11ra arte, eguneroko, Erguingo gazte txokoa batuko dira. Eta Julen Asurmendik judo eskolak emango ditu, urriaren 15etik abenduaren 11ra arte, eguaztenero, Musakolako gazte txokoa.

Ikastaro guztiak arratsaldean izango dira eta plaza mugatuak izango dituzte. Hip-hop eta grafiti ikastaroetan parte hartzeko matrikula sinbolikoa ordaindu beharko da, hiru eurokoa, hain zuzen ere. Judoko eskoletan parte hartzeko, ostera, ez da ezer ordaindu beharko. Ikastaroetan ize-

na emateko epea bukatzean dago, taldeak bete ez badira, behintzat. Hortaz, jo lehenbailehen Txatxilipurdiren bulegora (Pablo Uranga kalea) edo deitu 943 79 54 46 telefonora (Jasone).

Aurten, lehenengo aldiz, Txatxilipurdik herriko gazteei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Gazte horiek bete behar duten baldintza bakarra da 12 eta 18 urte artean izatea.

Orain arte, berriz, Txatxilipurdik antolatu dituen ikastaro guztiak gazte txokoetako erabiltzaileentzako izan dira: muralak egiteko, film laburren, sabel dantza, sukaldaritza, talogintza, eta beste asko.

Txatxilipurdiko arduradunek gazte txokoak ezagutzera emateko ahalegina egin dute. Ikastaro horien bitartez, gazte txokoak non dauden, nortzuek erabiltzen duten eta zein aukera ematen dituzten aditzera eman gura dute.

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



ESKORIATZA
Oihana eta Haizea Arana
Urriaren 12an, 2 urte. Zorionak! Gurasoen eta laguntxo-
en partetik.



ARRASATE
Oskar Andres
Urriaren 5ean, urtebete-
tzea. Zorionak, Unki! Fami-
liaren partetik.



ARRASATE
Marina Espinosa
Urriaren 10ean, urtebete-
tzea. Zorionak! Etxeko-
en partetik.



OÑATI
Ioritz Agiriano
Urriaren 16an, 18 urte.
Zorionak! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Lorea Aizpuru
Urriaren 11n, 6 urte. Zorio-
nak! Familiakoak.



ARRASATE
Iker Uribesalgo
Urriaren 15ean, 4 urte.
Zorionak, Kovacevic! Aita,
ama eta Jon.



ARRASATE
Alazne Delgado
Urriaren 11n, 2 urte. Zorio-
nak! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Maria Azkarate
Urriaren 8an, 10 urte. Zorio-
nak! Aitaxo eta amatxo eta
osaba eta izeba.




ARRASATE
Eugenio Garcia
Urriaren 9an, urtebete-
tzea. Zorionak! Pili emaztearen
partetik.



ARRASATE
Olatz Legarda
Urriaren 2an, 9 urte. Zorio-
nak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Josune Vicente
Urriaren 13an, 5 urte. Zorio-
nak! Familiaren partetik.



ARAMAIO
Beñat Burgi
Urriaren 11n, 9 urte. Zorio-
nak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Izaro Galfarsoro
Urriaren 12an, 1 urte. Zorio-
nak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Irati Aranegi
Urriaren 7an, 11 urte. Zorio-
nak! Ama pontekoaren eta
amonaren partetik.



ARRASATE
Irati Aranegi
Urriaren 7an, urtebete-
tzea. Zorionak! Mainerren eta
Elenen partetik.



ARRASATE
Jesus Mari Zabarte
Urriaren 6an, urtebete-
tzea. Zorionak, aita! Ihintzen
partetik.



ARRASATE
Lorea Urrutxua
Urriaren 7an, 14 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat! Etxekoak eta Titi.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS


Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zein izen dauka argazkian agertzen den elizak?
Arrastoa: Musakola inguruan dago.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Don Rodrigo ardoa
Beltza eta gorria 75 cl

0,60€ 100 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

TOMAS ERRARTE erendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Tomas!
Galderen erantzun zuzena:
1978koa zen erakutsitako kartela.

ARRASATEKO HISTORIA

Esteban Garibairen etxearen gaineko zenbait kontu

ARRASATE PRESS

Garibai etxea antzinako Beheko Errabalean zegoen, herriko harresietatik kanpoan behealderantz. Arrasateko alkate izango zen Esteban Garibai Zamalloa hantxe jaio zen, 1533an. Etxearen aurreko aldea, Zerkaosteta aldera begira zegoena, 1560an berritu zuten, leiho bat eta burdinazko balkoia egiteko. Besteak beste, balkoi haren beira-leihoak Nantestik ekarri zituzten. Balkoiaren gainean, bestalde, Zamalloatarren armarrria zegoen.

Historiagile handia izan zen Esteban Garibai. Besteak beste, Felipe II.aren kronikagile izan zen eta Arrasaten, Garibai etxean, idatzi zuen *Espainiako Historia Orokorra*. Liburu hura Anberesen inprimatu zuten geroago. Horrez gainera, idatzi zituen lan guztien artean, adibidez, kantu zaharrak ere jaso zituen Garibaik, bandoki-deen gainekoak.

Garibai 1599an hil zen, Madrilen. Edozelan ere, haren etxeak Garibai izena gorde du, eta lehengo leku berean segitzen du. Hori bai, kalearen izena

*Besteak beste,
Garibai etxearen
balkoiaren beira-
leihoak Nantestik
ekarri zituzten*

*Pedro Biterik gau
bakarra egin zuen
Garibai etxean;
esaten zuten etxea
sorginduta zegoela*

aldatu egin da: orain Biteri etorbidean dago. Eta, jakina, harrezkero etxea berritu egin dute behin baino gehiagotan. Azken aldiz 80ko hamarkada bukaeran, gero, Gazte Bulego gisa erabiltzeko. Alberto Mendietza eta Migel M^a Lasa Iturbe arkitektoek egin zuten proiektua. Aurrekontua 5.695.962 pezetakoa izan zen (33.000 euro pasatxokoa). Lan handienak



ARRASATE PRESS

Etxearen aurreko aldea 1560an berritu zuten, leiho bat eta burdinazko balkoia egiteko.

etxearen barruko aldean egin zituzten: gela banaketa berria, argiteria, eskailera... Dena dela, kanpoko aldean ere egin zituzten lanak: besteak beste, sarrerako atea aldatu egin zuten, baita

balkoiaren itxura ere.

Bitxikeria moduan esan beharra dago XIX. mendean Pedro Biteri Arana arrasatear ospetsuak Garibairen jaiote-txea erosi zuela; eta goitik

behera eraberritu ostean, gau bakarra egin zuen barruan. Esaten zuten Garibai etxea sorginduta zegoen. Bada, zer gertatu ote zitzaion Pedro Biteriri gau hartan...?

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urriaren 10a / 80. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Kaleko XII. Margo Lehiaketa jokatuko dute domekan

UBANE MADERA

Hamabigarren aldiz Kaleko Margo Lehiaketa izango da Aramaion. Etzi, domekan, jokatuko dute, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Nahi duenak har dezake parte.


Aramaio eta bere ingurua du ize-na domekako Kaleko Margo Lehiaketak. Itur Zuri emakumeen elkar-teak antolatu du, urtero moduan. Nahi duen guztiak har dezake parte ekimenean; etzi Aramaiora garaiz joatea nahikoa da.

Lehiaketa goizean izango da, 09:00etan hasi eta 11:00ak arte. Norberak nahi duen teknika erabil dezake margolanak egiteko; hori bai, lehiaketaren izenburuak esaten duen moduan, Aramaio eta bere ingurua erakutsi edo islatu beharko ditu. Lehiaketa bukatu ostean, 14:30ean, parte-hartzaile guztiendako bazkaria izango da.

Eta gero, arratsaldean jakinaraziko dute zeintzuk izan diren irabazleak; sari banaketa ere orduan izango da, 18:30ean hasita, Sastiña ermitan.

SEI SARI

Kaleko Margo Lehiaketa bi mailatan banatu dute, baita sariak ere: 16 urtetik beherakoen artean,



ARTXIBOA

Sari banaketa domekan bertan izango da, 18:30ean, Sastiñan.

irabazleak 150 euro eta plaka eramango ditu; bigarrenak 60 euro eta plaka eta hirugarrenak 30 euro eta plaka; eta 16 urtetik gorakoen artean, irabazleak 600 euro eta plaka eramango ditu, bigarrenak 360 euro eta plaka eta hirugarrenak 240 euro eta plaka. Hori bai, esan beharra dago partaide bakoitzak

sari bakarra irabaz dezakeela.

Bestalde, lehiaketarako egindako margolanak ikusgai egongo dira urriaren 12tik 21era. Eta, horren harira, lanok urriaren 22tik urriaren 30era bitartean bueltatuko dizkiete egileei. Dena dela, irabazleen margoak antolatzaileendako izango dira.

Bihar, gasolina usaina Aramaion

Errotabarritik Arexolara eta Arriolatik, Etxaguengo bidegurutzetik, Gantzagan zehar Ibarrara bueltatu. Horixe egingo dute bihar, zapatua, 40 bat lagunek abiada bizian egoki prestatutako automobilekin. Rallysprint-aren txanda da, 14:30ean hasi eta 20:30era arte. Ibilbide horri pare bat buelta emango diote, 26,4 kilometro egin arte. Azkarrena, garaile. /U.M.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bonika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxa eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behariko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

KZGUNEAN URRIAN
Datorren hilabeteari begira honako ordutegia izango du KZGuneak: 1etik 17ra goizean egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara; eta 20tik 31ra, berriz, arratsalde zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara.

ANBULATORIOKO OHARRAK
Anbulatorioan txanda hartzeko telefonoa honako hau da: 945 44 53 40. Gogoratu lehen mailako atentzio zerbitzuetarako txanda alde aurretik hartu beharra dagoela, eta horretarako goizez zein arratsalde dei daitekeela. Bestalde, larrialdiren bat izanez gero, honako telefonora deitu beharra dago: 943 46 11 11.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA
Urriaren 31n bukatzen da gripearen kontrako txertoa hartzeko epea. 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoei (diabetea, bihotzekoa...) zuzendutako kanpaina da. Anbulatortara jo behariko dute txertoa hartzera, 09:00etatik 13:00etara. Ezinduek etxean hartu ahal izango dute, medikuari edo erizainari esanda.

Argindar mozketak egingo dituzte laster herrian

UBANE MADERA

Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, argi mozketak egingo dituzte herrian datorren martitzenean, eguaztenean eta eguenean (hilak 14, 15 eta 16). Hain justu ere, zenbait auzotako transformazio zentroen mantentze-lanak egiteko moztu behar dute. Neguari begira egin ohi dituzte lanok.

Datorren asteari begira adi ibili behariko dute aramaiorek, hiru egunez argi mozketak egingo dituzte-eta herriko zenbait puntutan.

Hala, Udaleko teknikariek helarazitako oharraren arabera, datorren martitzenean, eguaztenean eta eguenean moztuko dute argindarra.

Lehen aipatutako moduan, auzoetako transformazio zentroetan mantentze-lanak egin behar dituzte, gero neguan arazorik sor ez dadin. Eta mantentze-lan horiek egiteko beharrezkoa dute argindarra moztea. Edozelan ere, esan beharra dago argindar mozketak gehienak oso laburrak izango direla.

Gasteizko Electrotecnica de

Urbina izeneko enpresak egingo ditu mantentze-lanok.

NON ETA NOIZ

Hala, martitzenean, hilak 14, Gantzagako, Etxaguengo, Labeagako eta Arexolako argindarra bideratzen duen transformazio zentroaren egoera aztertze txanda izango da. Horren ondorioz, bost-hamar bat minutuz moztuko dute argindarra auzo horietan. Baina ez dute zehaztu noiz.

Eguaztenean, berriz, Untzillako, Suñako, Ibabeko eta Uribarriko transformazio zentroa begiratu dute. Hortaz, beste bost-hamar bat minutuko etetea izango da auzo horietan.


PARE BAT ORDUZ BAILARA OSOAN

Bestalde, gogoratu beharra dago eguaztenean bertan, 09:30etik 11:30era arte Aramaio osoan moztuko dutela argindarra, bestelako lan batzuk egin behar dituztelako (fusibleak aldatu, pinuak bota, aberia konpondu...).

Eta bukatzeko, eguenean Gureiako, Altzagako, Azkoagako, Barajuengo eta Arriolako transformazio zentroan moztuko dute argindarra; kasu honetan bost-hamar bat minutuz.

Auzoetako transformazio zentroetan mantentze-lanak egin behar dituzte

Gogoratu beharra dago eguaztenean 09:30etik 11:30era Aramaio osoan moztuko dutela argia



Bihar, zapatua, pilota txapelketa jokatu dute

UBANE MADERA

Bihar gauean pilota partiduak jokatu dituzte Aramaio pilotalekuan. DV Txapelketaren barruan, aurreneko kanporaketako partiduak jokatu dituzte. Gazte mailako eta nagusi mailako partiduak izango dira. Lehenago, herriko Barea taldeko pilotari gazteek jokatu dute.

Besteak beste, gazte mailan Gipuzkoako eta Arabako txapelak Aramaion izango dira bihar, zapatua. Gipuzkoako txapelak Axpe arrasatearrak Elizalde baztandarrarekin batera jokatu du Arabako txapelak Azpiazua anaien kontra. 22:00etan hasiko da partidua.

Gero, haiek bukatu ostean, nagusien mailako pilotazaleen txanda izango da. Kasu horretan, Azpiazua eta Iriarte nafarrek Iza


girre eta Larrarte gipuzkoarren kontra jokatu dute eskuz bina-kako partidua.

Eta bi partidua horiek baino lehen, Aramaio Barea taldeko pilotari gazteek pilota ekinaldia egingo dute. 21:30ak inguruan hasiko da aurreneko partidua hori, besteak beste, pilotalekuko giroa berotzeko.

DV TXAPELKETA

Lehen esandako moduan, bihar partiduak DV Txapelketaren aurreneko kanporaketako partiduak dira. Hain justu ere, joan den asteburuan hasi zen txapelketa Getarian eta Lezon; Gabonak arte iraungo du. Hala, partidua guztiak lekuz aldatzen joango dira, herriz herri, leku bakoitzean partidua bat.

Era berean, esan beharra dago DV Txapelketa pilotazaleekin jokatzeko den txapelketa interesgarriena dela.



'Korapiloak' izeneko lana ipiniko dute

Argazkian ikusten duzun eskultura hori ipiniko dute laster Bañera parkean. Miguel S. Etxeberria Garmendia gipuzkoarrak egindako lana da, Caja Vital Fundazioak antolatutako eskultura lehiaketaren barruan. *Korapiloak* da eskulturaren izena eta, hain justu ere, Bañera parkean, errekaren albo bietan banatuta ipiniko dute.

Caja Vital Fundazioak 2000n abiarazi zuen eskultura lehiaketa. Ekimenaren helburua zera da: eskulturaren dako leku edo espazio berriak lortzea eta gure paisaiarekin bat egitea. Hala, eskulturen lehiaketa horretan urtez urte irabazle izan direnen lanak Arabako zenbait herritan ipini dituzte azken bi urteotan. Aurten, lehiaketaren azkeneko urtean, Aramaion ipiniko dute eskulturetako bat.

ERRETRATUZAHARRA


Seber Altube Gernikako alkate zela

Arrasatear handi batengana jo dugu oraingo honetan argazki zaharraren tartean: Seber Altuberengana. Hain justu ere, Gernikako alkate izendatu zuteneko argazkia ekarri dugu.

Errepublikara garaian aukeratu zuten gernikarrek alkate, 1931n; Gernikaren alde eta, oro har, Euskal Herriaren alde egindako lanagatik aukeratu zuten, baina esan beharra dago ez zela gizon politikoa. Gernikan, besteak beste, lehen abesbatza sortu zuen eta Gernikako musika bandaren zuzendari izan zen. Bost urtez jardun zuen alkate.

Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara: Victoriano Askondo alkateordea; Jesus Leizaola Euskadiko gobernuko lehendakaria erbestean; Seber Altube; Jose Domingo Iturraran artzapezpikua; Antonio Astelarra; Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat; eta Egileor, Diputazioko idazkaria.

Bitxikeria bat: Seber Altube Gernikako alkate zela, hego Euskal



Herriko alkateek biltzarra egin zuten Gernikan uztailearen 12an. Seber Altuberi egokitu zitzaion hara joan zirenei ongiatorria egitea. Eta, esandakoen artean, zera esan zion Jose Antonio Agirre lehendakariari agintza makila eman zionean: (...) *Zu bezalako gizonak, gau ta egun, gogo ta biotz,*

gorputz ta arima, aberrijaren alde diarduenak, neke ta atsekaberik asko izaten ditu; arerio gogorrak be bai. Baña, orde, erri zindoak, ustelkeri bako gizonak euren biotz barru-barruan eukiten dabe toki kutuntxo bat, zu legezko abertzale batzuentzat. Orixe agertu nahi izan deutzue, orain

zuretzat makila au gertau dabenak. Artu egizu ba, neke ta atsekabe arein ordaintza bezela (...).

Argazkia eta informazioa: *Sebero Altube* liburua, Josemari Velez de Mendizabal.
Urtea: 30eko hamarkada.


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ospitale zaharreko eraikina

Arrasateko ospitale zaharra zutik dago oraindik; eraikineko hormaren bat edo beste bai, behintzat. Ospitalea lekuz aldatu eta gero, batek daki horma horien artean zenbat egitasmo egin izan diren; izan ere, gaztetxea, Arrasate Telebista, Margo Taldea, Txalaparta Taldea, musika taldeendako entsegu lokalak eta beste ehunka talde, lagun eta elkarte batu izan dira han.



≈ 1991 Eraikin zahar hartan hasi ziren Arrasate Telebista eta ARRASATE PRESSko lankideak lanean, 80ko hamarkada amaieran.



2003 Eraikin hura zegoen lekuan kultura etxea egingo dute. Han, besteak beste, liburutegi berria eta erakusketa aretoa egingo dituzte.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak


**Astehenetan itxita
ESKORIATZA**

GORKA
ileapaindegia
peluqueria

GORKA

Ordutegia:
Astehenetik-ostiralerara 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerías 35 - 943 77 13 78

Udazken haizea Arrasate Irratian



Albisteak

Agenda

Elkarrizketak

Eguraldia

Musika

Kirolak

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Ikus ezazu Opel-en
berriena diesel teknologian

CDTI

Common Rail Diesel Turbo Inyección

Opel-ek Common Rail Diesel Turbo Inyección motor berriak aurkezten dizkigu. Diesel teknologia potentzia handienarekin eta kontsumo txikienarekin. Zatoz eta ikus ezazu Opel-en gama berria diesel CDTI motorretan.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es